Fitxa	Deitura
1.	Amilibia Haundi baserria (A)
2.	San Miguel Arcangel eliza (A)
3.	San Cristobal tenplua (B)
4.	Etxezarreta baserria (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
5.	Etxabe errota (ikusitako egiturarik gabe) (E)
6.	Etxabe Palacio baserria (A)
7.	Etxabe Goikua baserria (A)

Ficha	Denominación
1.	Caserío Amilibia Haundi (A)
2.	Iglesia de San Miguel Arcángel (A)
3.	Templo de San Cristóbal (B)
4.	Caserío Etxezarreta (sin estructuras visibles) (E)
5.	Molino Etxabe (sin estructuras visibles) (E)
6.	Caserío Etxabe Palacio (A)
7.	Caserío Etxabe Goikua (A)

Zk-953

ERABAKIA, 1996ko azaroaren 11koa, Kultura Ondarearen zuzendariarena, Hernaniko (Gipuzkoa) Balizko Arkeologia Guneen aurretiazko Izendapena egiteko eta interesatuentzako entzunaldia irekitzeko dena.

Euskal Autonomi Elkarteak, Konstituzioko 148.1.16. atalaren eta Estatutoaren 10.19. atalaren arabera, Kultura Ondareari buruzko eskumen osoa bereganatu zuen. Horretaz gain, ondare hori atzerriratu eta espoliatu ez dadin, irailaren 26ko 3068/1980 Errege Dekretuz, Estatuak ezarri zituen arauak eta obligazioak ere bereganatu zituen.

Hain zuzen ere eskumen horretaz baliatuz onartu zen Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea.

Arkeologia Ondarea babesteko sailetako bat Balizko Arkeologia Gunea da. Hori aintzat hartuta eta 7/1990 Legearen 49. atalari jarraituz, arkeologia aztarnak izan ditzaketen eraikin, orube zein inguruetan obrak egin nahi izanez gero, jabeak edo lanen sustatzaileak Ikerketa bat aurkeztu beharko du inguru horren balore arkeologikoaz eta obra proiektuak izan dezakeen eraginaz.

Urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren bidez, Balizko Arkeologia Guneak izendatzeko prozedura arautu eta aurkeztu beharreko Arkeologia Ikerketaren edukinak finkatzen dira, Kultura Ondarearen Legearen 49. atala mugatu delarik, Lehen Azken Xedapenaren 2. puntuak Eusko Jaurlaritzari ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Kultura Ondarearen Zentruko Zerbitzu Teknikoek osatutako Txostena eta Proposamena ikusirik eta inguru hori Balizko Arkeologia Gune izendatzeko dauden aztarnak aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.– Hernaniko Balizko Arkeologia Guneen aurretiazko Izendapena egiteko espedienteari hasiera ematea, Erabaki honen I. Eraskinean agertzen den Zerrendaren eta Mugaketaren arabera.

Nº-953

RESOLUCIÓN de 11 de noviembre de 1996, del Director de Patrimonio Cultural, por la que se realiza la Declaración Previa de las Zonas de Presunción Arqueológica de Hernani (Gipuzkoa), y se abre un período de Audiencia a los Interesados.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16. de la Constitución y a tenor del artículo 10.19. del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, así como el cumplimiento de las normas y obligaciones que estableció el Estado para la defensa del mismo contra la exportación y la expoliación mediante el Real Decreto 3068/1980, de 26 de septiembre.

En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Una de las categorías de protección del Patrimonio Arqueológico es la Zona de Presunción Arqueológica, que obliga, a tenor del artículo 49 de la Ley 7/1990, a que el propietario o promotor de las obras que se pretendan realizar en las zonas, solares y edificaciones donde se presuma la existencia de restos arqueológicos, aporte un Estudio referente al valor arqueológico del área y a la incidencia que pueda tener en el proyecto de obras.

Mediante Decreto 234/1996, de 8 de octubre, se establece la regulación del procedimiento de Declaración de las Zonas de Presunción Arqueológica y se define el contenido del Estudio Arqueológico a presentar, delimitando el marco del artículo 49 de la Ley de Patrimonio Cultural, en ejercicio de la facultad que la Disposición Final Primera, 2, otorga al Gobierno Vasco.

Visto el Informe Arqueológico elaborado por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural y analizados a los indicios que sustentan la presunción,

RESUELVO:

Primero.– Tener por realizada la Declaración Previa de las Zonas de Presunción Arqueológica de Hernani (Gipuzkoa), conforme a la Enumeración y a la Delimitación que figuran en el Anexo I.

Bigarrena.– Hernaniko Balizko Arkeologia Guneak izendatzeko espedientearen interesatuentzako entzunaldi epea irekitzea. Eraginak izan dituzten jabeek eta hori doakien guztiek bidezkotzat jotzen dituzten arrazoibideak egin eta agiriak aurkeztu ahal izango dituzte hogei eguneko epean, horrela xedatzen baita Herri Administrazioen Lege Jaurbidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko 30/1992 Legearen 86. atalean. Euskal Kultur Ondarearen Zentruan egongo da aztergai espedientea, San Antonio kalea 2.a, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz, helbidean.

Hirugarrena.– Espedientearen izapideei ekitea, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz.

Laugarrena.– Hernaniko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei honako hau jakinaraztea: espediente honi hasiera emateak aipatutako Balizko Arkeologia Gunetan egin beharreko edozein obretan, Ikerketa arkeologikoa egiteko exigentzia dakarrela.

Ez da indusketa lanik egin beharrik izango lurpean egindako aldaketa edo obren ondorioz, lur azpiko substratu arkeologikoa galduta dagoela egiaztatzen den lekuetan, baina kasu horietan bakar bakarrik.

Bosgarrena.– Erabaki honen berri ematea interesatuei, Hernaniko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari.

Seigarrena.– Hernaniko Udaletxeko Iragarki Tabloian, herrian aurkitzen diren Balizko Arkeologia Guneen Zerrenda eta Mugaketa erakustea, 234/1996 Dekretuaren 5.2. atalak dioen arabera

Zazpigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko azaroaren 11.

Kultura Ondarearen zuzendaria,
EDUARDO ESTRADE AMEZAGA.

Segundo.– Abrir un período de Audiencia a los Interesados del expediente de Declaración Previa de las Zonas de Presunción Arqueológica de Hernani, para que los propietarios afectados y demás interesados, durante un plazo de 20 días, puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que estimen pertinente, como previene el artículo 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle San Antonio n.º 2, bajo, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Continuar la tramitación del expediente, de acuerdo con las disposiciones en vigor.

Cuarto.– Hacer saber al Ayuntamiento de Hernani, así como a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que la incoación del presente expediente conlleva el que, en aquellas obras que se hayan de ejecutar en las Zonas de Presunción Arqueológica aludidas, se deba realizar el Estudio arqueológico que la Declaración exige.

Se entenderá que la actuación arqueológica no es necesaria, exclusivamente en aquellos elementos en los que se certifique la realización de modificaciones, de obras y de alteraciones del subsuelo que impliquen la eliminación del sustrato arqueológico.

Quinto.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Hernani y a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Sexto.– Instar la exposición, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Hernani, de la Enumeración y de la Delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica que se hallan en el término municipal, a tenor del artículo 5.2. del Decreto 234/1996.

Séptimo.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 1996.

El Director de Patrimonio Cultural,
EDUARDO ESTRADE AMEZAGA.

I. ERASKINA

HERNANIKO (GIPUZKOA) BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEEN ZERRENDA ETA MUGAKETA

Balizko Arkeologia Guneak honako irizpide hauen arabera finkatu eta mugatuko dira:

a.– Orain arte ezagun diren arkeologia materialen banaketa.

b.– Zero Kotaren gainetik dauden egituren kokapena.

ANEXO I

ENUMERACIÓN Y DELIMITACIÓN DE LAS ZONAS DE PRESUNCIÓN ARQUEOLÓGICA DE HERNANI (GIPUZKOA)

Los límites de las Zonas de Presunción Arqueológica se justifican en base a estos criterios:

a.– La distribución de los materiales arqueológicos que hasta el momento presente se conocen.

b.– La situación de las estructuras que se localizan por encima de la Cota Cero.

c.– Egitura horien kokapen topografikoa.

d.– Arkeologia gaien ezaugarri topografikoak eta beren garrantzi historikoa.

Hernaniko Balizko Arkeologia Guneak mugatzeko modua zehaztu nahian, aipatutako irizpideak eta elkar egokipena aintzat hartuta, babes esparruetan honako tipologia hauek bereziko dira:

A motakoak: Eraikinaren hormez barruko esparrua.

B motakoak: Eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanporen dauden puntuetatik hasita.

C motakoak: Elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanporen dauden puntuetatik hasita.

D motakoak: Eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua.

E motakoak: Planuan zehaztutako esparrua.

Azaldutako banaketa horri jarraituz, Balizko Arkeologia Guneei buruz honekin batera doan Zerrendan zehaztuta dago bakoitzari dagokion babes esparrua. Honako hauexek dira:

Fitxa	Deitura
8.	1873 - 76 gudan harresia (E)
9.	Antigua Parroquia de San Juan Bautista parrokia zaharra / San Agustin komentua (B)
10.	Leoka etxea (A)
12.	Xerra (gaur etxea) (A)
13.	San Juan Bautista y Oriamendiko S. Sebastian baseliza (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
14.	Sastiako San Martin baseliza (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
15.	Santa Barbara baseliza (gaur baserria) (A)
17.	Zeagoko errota (gaur industria) (D)
18.	Osinaga errota (D)
19.	Errotarane burdinola (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
20.	Epele dorretxea (ez zaio egiturarik ikusten) (A)
21.	Fagollaga burdinola (D)
22.	Ereñozu burdinolak (gaur baserria) (D)
23.	Ereñozu dorretxea (gaur baserria) (A)
24.	Bazterrola burdinola (hondatuta) (D)
25.	Abillatse burdinola (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
26.	Ubarratua burdinola (hondatuta) (D)
27.	Lasa burdinola (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
28.	Pikoaga burdinola (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
29.	Pagoaga burdinola (D)
30.	Aparraine burdinola (gaur eskorta) (ez zaio egiturarik ikusten) (E)
31.	Urruzuno burdinola (ez zaio egiturarik ikusten) (E)

c.– La posición topográfica que presentan las estructuras.

d.– Las características tipológicas y la relevancia histórica del elemento.

Tratando de sistematizar la Delimitación de las Zonas de Presunción Arqueológica de Hernani, en atención a los criterios ya señalados y a la conjunción de los mismos, se definen las siguientes tipologías de área de protección:

Clave A: Área intramuros del edificio.

Clave B: Área intramuros del edificio + 15 metros alrededor del mismo, a partir de sus bordes más exteriores.

Clave C: Área que ocupa el elemento + 5 metros alrededor del mismo, a partir de sus bordes más exteriores.

Clave D: Área que ocupan el edificio y las instalaciones anexas al mismo.

Clave E: Área que se especifica en el Plano.

A tenor del esquema expuesto, la Enumeración de las Zonas de Presunción Arqueológica que se acompaña, concreta el ámbito de protección de cada una de ellas. Son las siguientes:

Ficha	Denominación
8.	Muralla en la guerra 1873 - 76 (E)
9.	Antigua Parroquia de San Juan Bautista / Convento de San Agustín (B)
10.	Casa Leoka (A)
12.	Lonja (hoy casa) (A)
13.	Ermita de San Juan Bautista y S. Sebastián de Oriamendi (sin estructuras visibles) (E)
14.	Ermita de San Martín de Sastia (sin estructuras visibles) (E)
15.	Ermita de Santa Barbara (hoy caserío) (A)
17.	Molino de Zeago (hoy industria) (D)
18.	Molino de Osinaga (D)
19.	Ferrería de Errotaran (sin estructuras visibles) (E)
20.	Casa - Torre Epele (sin estructuras visibles) (A)
21.	Ferrería de Fagollaga (D)
22.	Ferrerías de Ereñozu (hoy caserío) (D)
23.	Casa Torre de Ereñozu (hoy caserío) (A)
24.	Ferrería de Bazterrola (ruinas) (D)
25.	Ferrería de Abillats (sin estructuras visibles) (E)
26.	Ferrería de Ubarratua (ruinas) (D)
27.	Ferrería de Lasa (sin estructuras visibles) (E)
28.	Ferrería de Pikoaga (sin estructuras visibles) (E)
29.	Ferrería de Pagoaga (D)
30.	Ferrería de Aparrain (hoy corral) (sin estructuras visibles) (E)
31.	Ferrería Urruzuno (sin estructuras visibles) (E)